ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko azaroaren 18a, asteazkena • 131 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

### Hezkuntza Zerbitzua

**14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2020-2021 ikasturtea**

2020ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea —ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2020-2021 ikasturtea—.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzeari onespena ematea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2020-2021 ikasturtea.

2020ko uztailaren 24 argitaratu ziren, ALHAOn, ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzen (14. ildoa) deialdi publikoa —2020-2021 ikasturtea— eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean egindako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2020ko uztailaren 24ko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoa aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztu diren eskabideei dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2020ko udal aurrekontuko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48004 partidan, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2020ko otsailaren 24an hartutako erabakia dela medio, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. I. eranskinean zerrendatutako laguntzak onartzea eta ematea, bertan zehazten diren ikastetxeentzat eta ikasle onuradunentzat, 2020-2021 ikasturterako, bakoitzarentzat adierazten den zenbatekoagatik, guztira 163.425,00 eurokoa da.

2. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa bi ordainketatan ordainduko da: lehenengo ordainketa, 54.474,00 eurokoa, 2020rako udal-aurrekontuko 2319 02 3261 48004 aurrekontu-partidaren kargura izango da; eta bigarrena, 108.951,00 eurokoa, 2021erako udal-aurrekontuaren kargura, baldin eta aurrekontu horretan horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

3. II. eranskinean ageri diren ikastetxeei eta ikasleei laguntzak ukatzea, deialdian bertan zehazten diren baldintzak betetzen ez dituztelako.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Jarraian, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 22an

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*
*ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA: ONARTUTAKO IKASLEAK, EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA ETA BI ORDAINKETEN ZENBATEKOA

IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO 2020-2021 IKASTURTERAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN EBAZPENA

| IKASTETXEA | Eskaerak | ONARTUTAKO IKASLEAK | | | DIRU-LAGUNTZA 2020-2021 | 2020KO AZAROTIK ABENDURA ARTEKO ZENBATEKOA | 2021EKO URTARRILETIK EKAINERA ARTEKO ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Banakako saioak | Saio Kolektiboak | GUZTIRA | | | |
| CEIP ABENDAÑO IKASTOLA HLHI | 7 | 6 | 0 | 6 | 2.772,00 | 923,00 | 1.849,00 |
| CEIP ABETXUKO IKASTOLA HLHI | 1 | 1 | 0 | 1 | 462,00 | 154,00 | 308,00 |
| CEIP ADURTZA IKASTOLA HLHI | 16 | 9 | 0 | 9 | 4.158,00 | 1.386,00 | 2.772,00 |
| CEIP ANGEL GANIVET-IZARRA-STA. LUCIA HLHI | 14 | 8 | 0 | 8 | 3.696,00 | 1.232,00 | 2.464,00 |
| CEIP ARANBIZKARRA IKASTOLA HLHI | 19 | 12 | 0 | 12 | 5.544,00 | 1.848,00 | 3.696,00 |
| CEIP ARANTZABELA IKASTOLA HLHI | 14 | 14 | 0 | 14 | 6.468,00 | 2.156,00 | 4.312,00 |
| CEIPS ARMENTIA IKASTOLA HLBHIP | 3 | 1 | 2 | 3 | 1.191,00 | 397,00 | 794,00 |
| CEIP PEDRO IGNACIO BARRUTIA IKASTOLA HLHI | 16 | 16 | 0 | 16 | 7.392,00 | 2.464,00 | 4.928,00 |
| CPEIPS CARMELITAS SAGRADO CORAZON HLBHIP | 2 | 2 | 0 | 2 | 924,00 | 308,00 | 616,00 |
| CPEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP | 3 | 1 | 0 | 1 | 462,00 | 154,00 | 308,00 |
| CEIP DIVINO MAESTRO-MARÍA DE MAEZTU HLHI | 9 | 9 | 0 | 9 | 4.158,00 | 1.386,00 | 2.772,00 |
| CPEIPS CALASANZ HLBHIP | 13 | 13 | 0 | 13 | 6.006,00 | 2.002,00 | 4.004,00 |
| CEIP ERREKABARRI HLHI | 5 | 5 | 0 | 5 | 2.310,00 | 770,00 | 1.540,00 |
| CEIP IBAIONDO HLHI | 13 | 13 | 0 | 13 | 6.006,00 | 2.002,00 | 4.004,00 |
| CPI IKASBIDEA IPI | 9 | 1 | 0 | 1 | 462,00 | 154,00 | 308,00 |
| CPEIPS INMACULADA CONCEPCIÓN HLBHIP | 6 | 6 | 0 | 6 | 2.772,00 | 924,00 | 1.848,00 |
| CEIP JUDIMENDI HLHI | 8 | 7 | 0 | 7 | 3.234,00 | 1.078,00 | 2.156,00 |
| CEIP LAKUABIZKARRA HLHI | 23 | 23 | 0 | 23 | 10.626,00 | 3.542,00 | 7.084,00 |
| CEIP LANDAZURI IKASTOLA HLHI | 11 | 11 | 0 | 11 | 5.082,00 | 1.694,00 | 3.388,00 |
| CEIP A.LÓPEZ DE GUEREÑU-J.MARDONES HLHI | 3 | 3 | 0 | 3 | 1.386,00 | 462,00 | 924,00 |
| CEIP LUIS DORAO HLHI | 10 | 8 | 0 | 8 | 3.696,00 | 1.232,00 | 2.464,00 |
| CEIP LUIS ELEJALDE-ROGELIA DE ALVARO HLHI | 3 | 3 | 0 | 3 | 1.386,00 | 462,00 | 924,00 |
| CEIP MARITURRI HLHI | 8 | 7 | 0 | 7 | 3.234,00 | 1.078,00 | 2.156,00 |
| CPEIPS NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES HLBHIP | 13 | 10 | 0 | 10 | 4.620,00 | 1.540,00 | 3.080,00 |
| CEIP MIGUEL DE CERVANTES HLHI | 25 | 21 | 0 | 21 | 9.702,00 | 3.234,00 | 6.468,00 |
| CPEI NC LEARNING INVESTIGATION CENTER HIP | 2 | 2 | 0 | 2 | 924,00 | 308,00 | 616,00 |
| CPEIPS NIÑO JESUS HLBHIP | 12 | 11 | 0 | 11 | 5.082,00 | 1.694,00 | 3.388,00 |
| CEIP ODON DE APRAIZ IKASTOLA HLHI | 15 | 15 | 0 | 15 | 6.930,00 | 2.310,00 | 4.620,00 |
| CEIP PADRE ORBISO HLHI | 7 | 1 | 0 | 1 | 462,00 | 154,00 | 308,00 |
| CEIP RAMON BAJO HLHI | 8 | 8 | 0 | 8 | 3.696,00 | 1.232,00 | 2.464,00 |
| CEIP SALBURUA HLHI | 6 | 4 | 2 | 6 | 2.577,00 | 859,00 | 1.718,00 |
| CPI SAMANIEGO IPI | 24 | 24 | 0 | 24 | 11.088,00 | 3.696,00 | 7.392,00 |
| CEIP SAN IGNACIO HLHI | 4 | 4 | 0 | 4 | 1.848,00 | 616,00 | 1.232,00 |
| CEIP SAN MARTIN HLHI | 15 | 15 | 0 | 15 | 6.930,00 | 2.310,00 | 4.620,00 |
| CPEIPS SAN VIATOR HLBHIP | 1 | 1 | 0 | 1 | 462,00 | 154,00 | 308,00 |
| CEIP SANTA MARIA DE VITORIA HLHI | 8 | 8 | 0 | 8 | 3.696,00 | 1.232,00 | 2.464,00 |
| CPI SANSOMENDI IPI | 5 | 5 | 0 | 5 | 2.310,00 | 770,00 | 1.540,00 |
| CEIP TOKI EDER IKASTOLA HLHI | 13 | 13 | 0 | 13 | 6.006,00 | 2.002,00 | 4.004,00 |
| CEIP UMANDI IKASTOLA HLHI | 12 | 10 | 2 | 12 | 5.349,00 | 1.783,00 | 3.566,00 |
| CPEIPS URKIDE HLBHIP | 10 | 9 | 0 | 9 | 4.158,00 | 1.386,00 | 2.772,00 |
| CEIP ZABALGANA HLHI | 10 | 9 | 0 | 9 | 4.158,00 | 1.386,00 | 2.772,00 |
| **GUZTIRA** | **406** | **349** | **6** | **355** | **163.425,00** | **54.474,00** | **108.951,00** |

### II. ERANSKINA: ONARTU GABEKO IKASLEAK

| IKASTETXEA | Onartu gabeko ikasleak | Ez dagokio DLHko 2.etik gorako mailan egoteagatik eta aurreko deialditik ez etortzeagatik | Ez dagokio laguntza eskatzen duen hirugarren aldia delako | Ez dagokio ez zuelako Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso 2019-2020 ikasturtean |
|---|---|---|---|---|
| CEIP ABENDAÑO IKASTOLA HLHI | **1** | | 1 | |
| CEIP ADURTZA IKASTOLA HLHI | **7** | 3 | 1 | 3 |
| CEIP ANGEL GANIVET-IZARRA-STA.LUCIA HLHI | **6** | | | 6 |
| CEIP ARANBIZKARRA IKASTOLA HLHI | **7** | | | 7 |
| CPI IKASBIDEA IPI | **8** | 8 | | |
| CEIP JUDIMENDI HLHI | **1** | | | 1 |
| CEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP | **2** | 2 | | |
| CEIP LUIS DORADO HLHI | **2** | | 1 | 1 |
| CEIP MIGUEL DE CERVANTES HLHI | **4** | | 1 | 3 |
| CEIP MARITURRI HLHI | **1** | | | 1 |
| CEIPS NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES HLBHIP | **3** | 2 | | 1 |
| CEPIPS NIÑO JESUS HLBHIP | **1** | 1 | | |
| CEIP PEDRO ORBISO HLHI | **6** | 5 | | 1 |
| CEIPS URKIDE HLBHIP | **1** | | | 1 |
| CEIP ZABALGANA HLHI | **1** | | | 1 |
| GUZTIRA | **51** | **21** | **4** | **26** |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.11.18 06:32:16 Z